

BURUZKO PROBLEMAK Bp (11)

- 1.- 3 kiloko antxoa-lata batek 20 € balio baldin badu; zenbat balioko dute 9 kilok?
- 2.- Gazta-kutxatxo batek 12 gaztatxo dauka, nire anaiak laurdena jan du eta nire arrebak 3 gaztatxo; zenbat gaztatxo gelditu dira kutxatxoan?
- 3.- Zifra bateko hiru zenbaki dezberdinen batuketa 20 da. Zeintzu izan daitezke zenbaki horiek? (Erantzun bat baino gehiago)
- 4.- 150 eurotan, zenbat hamarreko bileteak daude?
- 5.- 25 komiki daukat. Atzo gaixorik egon nintzenez 3 lagunek hiruna komiki ekarri zidaten. Zenbat komiki daukat orain?
- 6.- Zenbaki bat pentsatu dut. 3 hamarreko eta 5 unitate kentzen badiot, 145a lortzen dut. Zein da pentsatutako zenbakia?
- 7.- 5 urte eta hilabete batetan, zenbat hilabete dago?
- 8.- Aitziberren soka metro eta erdikoa da, eta Nagorerena lau aldiz luzeagoa da; zenbat metro neurtzen du Nagoreren sokak?
- 9.- 10 baino handiago eta 20 baino gutxiago diren bi zenbakitan pentsatu dut. Beren diferentzia 7koa da eta beren batura 29. Zeintzu dira zenbakiok?
- 10.- Zortzi eta laurdenetan jaikitzen banaiz eta 50 minutu beranduago etxetik ateratzen banaiz. Zer ordutan ateratzen naiz?